



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko maiatzaren 2a

41. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen Nafarroako Osasun Mentalari buruzko abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeko 1. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letra aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Foru lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.1 artikulua aldatu eta, horrenbestez, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko xedapenen Testu Bategina onetsi zuen apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren 35 I B 25.1 artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (6. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Drogamenpekotasunen II. Plana aurkez dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da behar diren lege-mekanismoak artikulatuz Nafarroako Gobernuaren ordezkariak Ecofinen bilkurretan parte hartu ahal dezaten. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Ikus-entzunezkoen sektoreari buruzko erabakia. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo kronikoentzako estrategia integral bat taxutu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeen trafikoaren aurkako neurriak bultzatzea. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaur egungo beka-politika mantentzeko. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa osoan errespetatzen dituzten euskaldunen hizkuntza eskubideak. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan jarrai Estatuarekin prestazio handiko trenari buruz sinaturiko hitzarmena aplikatzen. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko aurrekontuen zirriborroan sar dezan aurreko urteetatik datorren zenbateko konprometitua. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aldaketa klimatikoaren aurkako ekintza-estrategia berri bat diseina eta aplikatzea. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko mekanismo berriak indartzera eta artikulatzera. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, Lodosako Ibaialde ikastolaren egoerari buruzkoa. Galdera erretiratzea (12. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea aldatzekoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea aldatzekoa**

**ZIOEN AZALPENA**

Behin buruturik Nafarroako Enpresa Publikoen Sektorea Berregituratzeko Plana –hain zuzen ere, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea onestean aurreikusitako fasean egin da–, egungo egoera ekonomikoa aintzat hartu, eta areagotu egin behar dira baliabide publikoen kontrola eta eraginkortasuna, ahal denik eta handienak izan daitezen. Zerbitzu bikoiztuak bateratzea, gastu publikoa optimizatzea, ahalik eta efizientzia handiena lortzea eta defizit publikoa kontrolatzen eta murrizten modu positiboan laguntzea helburu dituen politika honetan, enpresa publikoen sektoreak ere bete-betean hartu behar du parte, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak duen tresnetako bat baita. Horiek horrela, eta Nafarroako Gobernuak enpresa publikoak, eginkizunei dagokienez, departamentuei daudenez atxikirik, une honetan komenigarritzat jotzen da holding-lana egiten duen enpresa publiko nagusia –Nafarroako Enpresa Korporazio Publi-

koa, S.M.P.– saia dadin koordinazio ahalik eta handiena lortzen taldearen barruan; horregatik, komeni da enpresa publiko nagusi horren burutza Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ari denak hartzea bere gain zuzenean, nahiz eta hori ez den eragozpen izanen ondare arloko eskumenak dituen kontseilariak berari dagozkion esku-dantziak osotara betetzeko.

Era berean, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatearen ohiko jarduna errazteko, Administrazio Kontseiluko kontseilukide delegatuaren figura sortzea aurreikusi da; kasu honetan, Nafarroako Gobernuan ondare arloko eskumenak dituen kontseilariak beteko du lan hori, Administrazio Kontseiluko karguagatik kide ere badenak.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen aldaketa.

3. artikuluan 4. idatz-zatiari testu berria eman zaio, eta idatz-zati berri bat, bosgarrena, erantsi. Hauexek dira testuak:

“4. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.-ren bazkide bakarrak izendatuko ditu Administrazio Kontseiluko kideak: heren bat Nafarroako Gobernuak proposatuta, heren bat Nafarroako Parlamentuak proposatuta eta heren bat izen handiko profesional independenteen artetik. Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria izanen da Kontseiluko burua, bai eta Kontseiluko karguagatik kide ere, Nafarroako Gobernuak proposatu beharreko herenaren barruan. Ondare arloko eskumena duen departamentuko kontseilaria ere karguagatik kide izanen da Kontseiluan, Nafarroako Gobernuak proposatu beharreko herenaren barruan.

5. Sozietateko Administrazio Kontseiluak Kontseiluko kide delegatu bat izendatuko du, Kontseiluak berak emandako eginkizunak beteko dituena, ordezkaezinak direnak kenduta. Lanpostu hori Nafarroako Gobernuan ondare arloko eskumenak dituen kontseilariak beteko du, sozietateko Admi-

nistrazio Kontseiluko karguagatiko kide ere badenak.”

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen Nafarroako Osasun Mentalari buruzko abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeko 1. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letra aldatzekoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen Nafarroako Osasun Mentalari buruzko abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeko 1. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letra aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen Nafarroako Osasun Mentalari buruzko abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeko 1. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letra aldatzekoa**

**ZIOEN AZALPENA**

Aldatu nahi den foru legeak, zeina 2010eko abenduaren 17ko NAO-n argitaratu baitzen, “okupazio-monitoreak” aipatzen ditu 1. artikuluko j) letran, baina terminologia zuzena ez da hori, baizik eta “okupazio-terapeutak”; hortaz, terminologia hori mantentzeak okerra eragin dezake, ez baitago halako izendapenik.

**Artikulu bakarra.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen Nafarroako Osasun Mentalari buruzko abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legeko 1. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letra aldatzen da. Hona testua:

“j) Osasun Mentaleko laguntza-zerbitzu diziplina anitzekoak sortzea, psikiatreek, psikologo klinikoek, erizaintzako diplomadunek, gizarte-langileek, okupazio-terapeutek, erizaintzako laguntzaileek eta planen helburuak ziurtatzeko egoki irizitako bestelako langileek osatuak: Drogamenpeketasun Plana, Espetxe-psikiatriako Plana, Nerabeei Laguntza Emateko Plana eta sor daitezkeen bestelakoak.”

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

**Foru lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.1 artikulua aldatu eta, horrenbestez, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko xedapenen Testu Bategina onetsi zuen apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren 35 I B 25.1 artikulua aldatzekoa.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2012ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako ondoko Foru Lege proposamena: "Foru lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.1 artikulua aldatu eta, horrenbestez, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko xedapenen Testu

Bategina onetsi zuen apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren 35 I B 25.1 artikulua aldatzekoa."

Proposamen hori 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Drogamenpekotasunen II. Plana aurkez dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko apirilaren 19an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Drogamenpekotasunen II. Plana aurkez dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Drogamenpekotasunen II. Plana aurkez dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Drogamenpekotasunen II. Foru Plana aurkez dezan Legebiltzar honetan eta horren berri eman dezan jendaurrean, eta plana garatzeko aurreikusitako faseak eta jarduketa-eremuak zehatz ditzan.

**Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da behar diren lege-mekanismoak artikulatu ditzan Nafarroako Gobernuaren ordezkariak Ecofinen bilkuretan parte hartu ahal dezaten.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko apirilaren 19an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da behar diren lege-mekanismoak artikulatu ditzan Nafarroako Gobernuaren ordezkariak Ecofinen bilkuretan parte hartu ahal dezaten."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da behar diren lege-mekanismoak artikulatu ditzan Nafarroako Gobernuaren ordezkariak Ecofinen bilkuretan parte hartu ahal dezaten**

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du behar diren lege-mekanismoak eta arauak artikulatu ditzan, Nafarroako Gobernuordezkariak Espainiako Gobernuordezkariekin batera joan daitezkeen Ecofinen bilkuretarantz, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumena diren arlo fiskalekin lotutako gaiak aztertzen direnean.

## **Ikus-entzunezkoen sektoreari buruzko erabakia.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko apirilaren 19an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Pirinioen 2007-2009 Planean hartutako konpromisoak bete ditzan." Horren jatorria da Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztutako mozio bat, 2012ko urtarrilaren 3ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Ikus-entzunezkoen sektoreari buruzko erabakia**

1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die *Navarra Directo* telebista-saioko langileei, eta aitortzen du saio horrek eginiko zabalkunde lana.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean argitu ditzan ikus-entzunezkoak ekoizteko laguntzak emateko irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikus-entzunezkoen sektoreko lanpostuak babesteko ahalegina egin dezan, gaur egun sektore horren egoera zaila eta ahula baita.

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo kronikoentzako estrategia integral bat taxutu dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko apirilaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo kronikoentzako estrategia integral bat taxutu dezan"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo kronikoentzako estrategia integral bat taxutu dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gaixo kronikoentzako estrategia integral bat taxutu dezan.

Estrategia urtebeteko epean aurkeztuko zaio Nafarroako Parlamentuari, eztabaidatu eta onets dezan.



## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeen trafikoaren aurkako neurriak bultza ditzan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko apirilaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeen trafikoaren aurkako neurriak bultza ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeen trafikoaren aurkako neurriak bultza ditzan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Botere Judiziala Sexu-esplotazioarako emakume-salerosketari buruzko Nafarroako Foroko kidea gisa sar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sexu-esplotazioarako emakume-salerosketa kasuetarako jarduketara protokolo bat taxutu dezan ahalik eta lasterren. Protokolo horrek, zeinak izaera orokorra izanen baitu, aintzat hartuko ditu arlo horretan eskumenak dituzten entitate publikoak eta pribatuak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oroitidazki bat igor dezan urtero, zeinetan jasoko baitira Sexu-esplotazioarako emakume-salerosketari buruzko Nafarroako Foroak egindako jarduera nagusiak. Oroitidazki hori kasuan kasuko ekitaldia bukatu eta sei hilabeteko epean igorri beharko da Parlamentura.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaur egungo beka-politika mantentzeko dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko apirilaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaur egungo beka-politika mantentzeko dezan." Horren jatorria da Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2012ko martxoaren 2ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaur egungo beka-politika mantentzeko dezan**

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du beken egungo sistema mantentzeko dezan, denon eskubide gisa ulerturta. Xedea da aukera-berdintasuna babestea, ikasle guztientzako hezkuntzaren kalitatea, bikaintasuna eta inklusioa lortu ahal izateko.

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa osoan errespetatzen dituzten euskaldunen hizkuntza eskubideak.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Bildu-Nafarroa parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa osoan errespetatzen dituzten euskaldunen hizkuntza eskubideak"

Legebiltzarrak, 2012ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2011ko abenduaren 23ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan jarrai Estatuarekin prestazio handiko trenari buruz sinaturiko hitzarmena aplikatzen.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan jarrai Estatuarekin prestazio handiko trenari buruz sinaturiko hitzarmena aplikatzen"

Legebiltzarrak, 2012ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko urtarrilaren 3ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko aurrekontuen zirriborroan sar dezan aurreko urteetatik datorren zenbateko konprometitua.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko aurrekontuen zirriborroan sar dezan aurreko urteetatik datorren zenbateko konprometitua"

Legebiltzarrak, 2012ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko urtarrilaren 3ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aldaketa klimatikoaren aurkako ekintza-estrategia berri bat diseina eta aplikatzea.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Izquierda-Ezkerra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aldaketa klimatikoaren aurkako ekintza-estrategia berri bat diseina eta aplikatzea."

Legebiltzarrak, 2012ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko mekanismo berriak indartzera eta artikulatzera.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Bikendi Barea Aiestaran jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko mekanismo berriak indartzera eta artikulatzera."

Legebiltzarrak, 2012ko apirilaren 20an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko apirilaren 11ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Lodosako Ibaialde ikastolaren egoerari buruzkoa.**

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2012ko apirilaren 19an egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Lodosako Ibaialde ikastolaren egoerari buruzkoa, erretiratu izanari dagokionez.

Galdera hori 2012ko otsailaren 10eko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera